SENATUKO EUSKO LEGEBILTZAR TALDEA
GRUPO PARLAMENTARIO VASCO EN EL SENADO

SENADO
XII LEGISLATURA
REGISTRO GENERAL
ENTRADA 108.007
25/04/2018 19:40

**A LA MESA DEL SENADO**

El Grupo Parlamentario Vasco en el Senado (EAJ-PNV), al amparo de lo dispuesto en el Reglamento de la Cámara, solicita la tramitación de la siguiente Moción Consecuencia de Interpelación para su debate en el Pleno de la Cámara.

Palacio del Senado, 25 de abril de 2018.

Jokin Bildarratz Sorron
Portavoz

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La aparición de nuevos materiales y formatos destinados a la higiene personal ha supuesto un gran avance y una pequeña revolución en los hábitos higiénicos de todos nosotros.

Revolución que se ha dado no solo en la higiene personal, sino también en la forma de limpiar y cuidar de manera específica muchos objetos de uso cotidiano.

Esto está suponiendo un aumento imparable en la venta y la utilización cotidiana de este tipo de materiales, pero desgraciadamente, también es origen de un problema medioambiental evidente y muy grave.

Prácticamente el 100% de las toallitas puestas en el mercado son productos del tipo "tejido, no tejido", formados por la compactación de fibras de origen plástico o de celulosa mediante el calor o por ligantes químicos, sin necesidad de tejer sus fibras.

Estas características las convierten, por tanto, en materiales NO biodegradables y NO dispersables.

Por otra parte, una publicidad y un etiquetado engañosos de los productos, ha derivado en una asimilación por parte de los usuarios de estos materiales contaminantes al papel higiénico convencional, por lo que su vertido en el inodoro ya se realiza con total normalidad.

La consecuencia es un importantísimo impacto medioambiental, que se concreta en graves problemas en la gestión de los sistemas de saneamiento y depuración, además de los resultantes del vertido directo de las propias toallitas y de los microplásticos derivados de ellas en los ríos o los fondos marinos.

La gravedad del problema nos obliga a diseñar e implementar medidas urgentes y efectivas, a todos los niveles institucionales, tanto de tipo normativo como de concienciación de productores y usuarios.

Hay que seguir trabajando en las líneas de actuación ya efectivas para combatir este problema.

Es importante fomentar e impulsar las medidas voluntarias y de concienciación que comprometan a instituciones, productores y usuarios.

Pero también parece evidente la existencia de una carencia de normativa clara y concisa, que ha permitido la existencia de situaciones ambiguas o de falta de control que han servido para que hayamos llegado a la grave situación actual, que hay que corregir cuanto antes.

Es necesario apoyar y agilizar, a nivel estatal y a nivel europeo, los trabajos para definir las características normalizadas de las toallitas, como un paso previo imprescindible para definir los procesos de gestión adecuados de estos materiales al final de su vida útil y sirvan también para eliminar paulatinamente del mercado aquellas que no sean efectivamente biodegradables.

Por todo ello el Grupo Parlamentario Vasco (EAJ-PNV) en el Senado, presenta la siguiente Moción consecuencia de interpelación:

**MOCIÓN**

El Senado insta al Gobierno a:

1. Apoyar y desarrollar las medidas recogidas en la Declaración de 2016, sobre la posición del sector internacional del agua, respecto a los productos etiquetados como desechables y no desechables por el inodoro.

2. Apoyar y tomar las medidas necesarias para culminar la elaboración de unos criterios estándares por parte de la Asociación Española de Normalización (UNE), para la determinación de las características técnicas de los productos del tipo de las toallitas higiénicas susceptibles de ser desechables por el inodoro.

3. Iniciar y financiar una campaña específica de concienciación ciudadana a nivel Estatal sobre el vertido inadecuado en el inodoro de toallitas higiénicas y de limpieza, basándose en la recomendación de que por el inodoro solo deben desecharse las 3P (en inglés, Pee, Po and toilet Paper).

4. Liderar el apoyo de las instituciones europeas al proceso de determinación de una norma ISO que sirva para la concreción de normas a nivel internacional equivalentes a las del punto 2.

5. Liderar e incentivar a nivel de la UE el desarrollo normativo y las acciones comunitarias destinadas a erradicar este grave problema medioambiental, empezando por la inclusión de las toallitas confeccionadas por materiales plásticos dentro de la estrategia europea sobre plásticos.

6. Crear un Grupo de Trabajo, incluyendo a expertos, representantes del sector de la gestión del agua, los productores y usuarios, la Administración Local y las Comunidades Autónomas para:

- proponer, de forma urgente, una normativa en materia de etiquetado de los materiales susceptibles de ser desechados por el inodoro y las medidas para garantizar su cumplimiento, en base a los criterios definidos por las futuras normas UNE/ISO.

- estudiar el desarrollo de una norma legal propia del Estado español, que defina las exigencias de biodegradabilidad y dispersabilidad de los productos concebidos para ser desechados por los inodoros, en la línea de otros países europeos como Bélgica.

- diseñar un plan para la erradicación de los derivados plásticos y materiales del tipo "tejido no tejido", que no cumplan con los criterios de biodegradabilidad y dispersabilidad, en la confección de cualquier tipo de toallita desechable, destinado al consumidor general no industrial.

- el diseño y el seguimiento de las futuras campañas de concienciación ciudadana sobre el problema de los vertidos inadecuados de materiales diversos al sistema de saneamiento, incluyendo los contaminantes emergentes: medicamentos (antibióticos, hormonas...), compuestos perfluorados (PFC), drogas de abuso...

---

**ARRAZOIEN AZALPENA**

Garbitasun pertsonalerako material eta formatu berriak agertu izanak denon garbitasun ohiturentzako aurrerakuntza handi eta iraultza txiki bat eragin du.

Eta ez bakarrik garbitasun pertsonalean, baita egunero erabiltzen ditugun hainbat tresna garbitu eta zaintzeko modu espezifikoan ere.

Horren eraginez, material mota hauen salmenta eta ohiko erabileraren hazkunde geraezina ematen ari da, eta baita, tamalez, ingurumen arazo nabarmen eta larria ere sortzen ari da.

Merkatuan salgai dauden zapien ia %100 "ehun, ez ehun" motako produktuak dira, jatorrian plastikozkoak diren zuntzak trinkotuz egiten direnak edota zelulosazkoak baina beroaren bitartez edo lotzaile kimikoekin batutakoak, zuntzak ehuntzeko beharrizanik gabe.

Ezaugarri hauekin, beraz, material hauek EZ biodegragarriak eta EZ sakabanagarriak dira.

Bestalde, produktuen publizitate eta etiketa engainagarriek erabiltzaileetako askoren artean material kutsakor hauek ohiko komuneko paperaren parekoak direlako ideia sinestarazi diete, eta horregatik normaltasun osoz botatzen dira komuneko zulotik.

Honen ondorioa ingurumen inpaktu garrantzitsua da, saneamendu eta arazketa sistemen gestioan arazo larriak eraginez. Eta ez da ahaztu behar zapiak zuzenean eta haiengandik eratorritako mikroplastikoak isurtzeak ibai eta itsas hondoetan duten eragina.

Arazoaren larritasunak larrialdiko neurri eraginkorrak diseinatu eta martxan jartzera behartzen gaitu, erakundeetako maila guztietako neurriak: arauen aldetik edota ekoizleen eta erabiltzaileen kontzientziazioaren aldetik.

Arazoari aurre egiteko, eraginkorrak izaten ari diren ekintza lerroetan lan egiten jarraitu behar da.

Garrantzitsua da erakunde, ekoizle eta erabiltzaileak konprometituko dituzten borondatezko kontzientziazio neurriak sustatu eta bultzatzea.

Baina begi bistakoa da arautegi argi eta zehatz bat ere falta dela, gaur egungo egoera larrira heltzea ahalbidetu duten kontrol gabezi edota egoera anbiguoak ematea erraztu duten arauak eta lehenbailehen konpondu behar direnak.

Beharrezkoa da, Estatu zein Europa mailan, zapi hauen ezaugarriak zehazteko lanak sustatu eta azkartzea material hauek euren erabilera amaitzerakoan modu egokian gestionatzeko prozesuak zehazteko ezinbesteko aurreko pauso

moduan, horrela benetan biodegragarriak ez direnak apurka-apurka merkatutik kentzen joateko.

Aurretik azalduriko guztiagatik, Senatuko (EAJ-PNV) Euzko Abertzaleak Taldeak hurrengo interpelazioaren ondoriozko Mozioa aurkezten du:

**MOZIOA**

Senatuak honako hau egiteko premia adierazten dio Gobernuari:

1) Komuneko zulotik bota ahal direla eta ezin direla etiketatutako produktuen inguruan nazioarteko uraren sektorearen posizioa zehazten duen 2016ko Adierazpenean jasotzen diren neurriak babes eta gara ditzala.

2) Komuneko zulotik botatzeko modukoak diren garbitasunerako zapien motako produktuen ezaugarri teknikoak zehazteko Espainiako Normalizaziorako Elkarteak (UNE) irizpide estandar batzuk ezarri ahal izateko beharrezko neurriak babestu eta hartu ditzala.

3) Garbiketarako zapiak komuneko zulotik botatzea gaizki dagoela kontzientziatzeko kanpaina espezifikoa hasi eta finantza dezala Estatu mailan, horretarako oinarri moduan hartuz komunetik bakarrik 3P direlakoak bota ahal direla (ingelesezko Pee, Po and toilet Paper).

4) Bigarren puntuarekiko baliokideak diren nazioarte mailako arauak zehaztuko dituen ISO arau bat zehazteko prozesuari Europako erakundeek ematen dioten babesaren buru izan dadila.

5) Europako batasunaren mailan ingurumen arazo larri honekin amaitzera bideratutako ekintza komunitarioen eta arauen garapen jardueren buru izan dadila eta sustatu ditzala, hasteko material plastikoekin egindako zapiak plastikoen inguruko Europako estrategiaren barruan sartuz.

6) Lan Talde bat sor dezala, bertan adituak, uraren gestioko sektorearen ordezkariak, ekoizle eta erabiltzaileak, Erakunde Lokalak eta Autonomia Erkidegoak elkartuz, honako hauek egiteko:

- etorkizunean zehaztuko diren UNE/ISO arauetan zehaztuko diren irizpideen arabera, komuneko zulotik bota ahal diren materialen berri emateko etiketatzearen inguruko arautegia eta hau beteko dela bermatzeko neurriak lehenbailehen proposatzeko.

- komuneko zulotik bota ahal izateko helburuarekin sortutako produktuen biodegragarritasun eta sakabanagarritasun betebeharrak zehazteko Estatu espainiarrerako propioa izango den lege arau baten garapena aztertzeko, Belgika bezalako herrietan egin denaren harira.

- kontsumitzaile orokorrari, ez industrialari, zuzendutako botatzeko edozein zapi mota egiterakoan biodegragarritasun eta sakabanagarritasun irizpideak betetzen ez dituzten "ehun, ez ehun" tipoko material eta plastikoetatik eratorritako materialak desagerrarazteko plana diseinatzeko.

- saneamendu sisteman mota desberdinetako materialak, barnean hartuz, baita ere, gero eta gehiago agertzen ari diren elementu kutsakorrak: botikak (antibiotikoak, hormonak...), konposatu perfluoratuak (PFC), abusuzko drogak..., modu okerrean isurtzeak sortzen dituen arazoen inguruan herritarrak kontzientziatzeko etorkizunean egin daitezkeen kanpainak diseinatu eta jarraipena egiteko.